

2024ko Kirol ekintzen dirulaguntzak dituen ohiko eta ezohiko ekintzen, ekintza berezien eta formakuntza dirulaguntzen oinarri arautzaileak.

1. Helburua.

Deialdi honen helburua da, Hernaniko Udalerrian Kirol arloko dirulaguntzak ematea hainbat kirol programa, jarduera eta ekitaldi antolatzeagatik. Kirol jarduera horien xedea da herrian kirola sustatzea, eta ez dute irabazi asmorik izango. Gainera, kirol arloan interes orokorrekoak izan beharko dute.

Dirulaguntza hauetan kontuan izango da Hernaniko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2023-2025erako diru laguntzen Plan Estrategikoa, Araudiaren 7. artikuluan xedatutakoa garatzeko ematen dira.

2. Aurrekontua eta programa

Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 71.000 euro izango da, eta 2024ko Hernaniko Udaleko 102.481.01.341.00 2024 aurrekontu partidaren kargura, eta lehiaketa bitartez "Dirulaguntza: kirol ekintzak" partidari dagokionez kontabilizatuko da. Dirulaguntza ondoko lerroetan banatua dago:

- A) 1. lerroa: Ohiko dirulaguntzak (55.000 euro).
- B) 2. lerroa: Ezohiko dirulaguntzak (6.000 euro).
- C) 3. lerroa: Kirol ekitaldi eta jarduera berezien eta formakuntza dirulaguntza (10.000 euro).

3. Onuradunak

Dirulaguntzen lerro bakoitzeko programa espezifiko bakoitzean daude definituta nor diren onuradunak kasu bakoitzean.

4. Kanporatzeak.

Deialdi honetako aplikazio eremutik kanpo geratuko dira ondoko jarduerak:

- a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13.2. eta 3. artikuluetan aurreikusitako gertaeraren bat jasotzen dutenak.
- b) Hernaniko Udaleko jarduera eremuekin erlazio zuzenik ez duten helburuak edota izaera dituztenak.
- c) Edozein motako zerga-betebeharrak betetzen ez dituzten entitateek eta elkarteek aurkeztutako eskaerak, herri izaera eta gizarte segurantzaren barne. Egiaztapenak administrazioak egingo ditu.
- d) Udalak hala eskatuta, aurreko deialdietan emandako dirulaguntzei buruzko edozein dokumentazio oraindik eman gabe duten jarduera edota programa bati buruzko eskaerak ez dira kontuan izango.
- e) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea betetzen ez dutenak.
- f) Ez dira aintzat hartuko beren jarduera publikoetan indarrean dagoen legea (jaiotza, arraza, sexu, erlijio iritziagatik diskriminazioaren debekua) betetzen ez duten elkarte edo klubak eskabideak.

5. Eskabideak aurkeztea

Dirulaguntza eskatzeko eskari ofizialak erabiliko dira, behar bezala beteak eta sinatuak. Eskaera orriak udal erregistroan sartu behar dira.

Eskaerak eta dokumentazioa aurkezteko lekua:

- Aurrez aurre, HHZ – Herritarren Harrera Zerbitzuan, Udaletxeko beheko solairuan. Astelehenetik ostiralera: 08:00-13:30 (astarte eta ostegunetan, 14:30-18:30 ere).
- Internet bidez: www.hernani.eus helbidean.

Dirulaguntzen lerro bakoitzeko programa espeziko bakoitzean zehazten dira eskabide motak.

6. Epea.

Aurkezteko azken eguna: Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN deialdia agertzen den unetik 15 egun natural. Dokumentazioa eskuratzea, informazioa eta eskaeren aurkezpena: Hernaniko udal erregistroan.

Entitate eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osorik ez dagoenean edota Oinarri hauetan exijitutako baldintzak betetzen ez dituenean, akats formalak zuzentzeko edota beharrezko dokumentuak aurkezteko hamar egun baliodun emango zaizkio. Hala egiten ez badu, eskaera bertan behera geratzen dela jakinaraziko zaio, eta eskaera tramite gehiagorik gabe artxibatuko dute indarrean dagoen araudiaren arabera.

Ale bat entitate eskatzailearen eskuetan geratuko da, eta bestea Hernaniko Udaleko Sarrera Erregistroan bertan.

7. Aurkeztutako dokumentazioaren ziurtagiria.

Kirol zuzendariak eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioaren ziurtagiria egingo du proposamena osatzeko. Ziurtagiri gabe ez dira baloratuko hurrengo puntuko irizpideak.

8. Eskaerak ebaluatzeko irizpideak

Dirulaguntzen lerro bakoitzeko programa espezifiko bakoitzean zehazten dira eskabideak aurkezteko bideak.

9. Dirulaguntzen ordainketa

Dirulaguntzen lerro bakoitzeko programa espezifiko bakoitzean zehazten dira ordaintzeko bideak.

10. Publizitatea.

Diruz lagundutako jardueri publizitatea egiten zaienean, jarduera bultzatu duen pertsonak edo erakundeak Hernaniko Udalaren laguntza jaso duela adierazi beharko du, irudi korporatiboaren arauen arabera.

Horretaz gain, proiektuari, programari edo jarduerari lotutako iragarki eta komunikazioetan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatuko da. Bereziki pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan jaso behar da. Lagungarri gisa Udaleko web orrian zintzilikatuta dagoen gida: Komunikazio berdinzalerako jarraibideen gida.

11. Ebazpen epea eta administrazioaren isiltasuna.

Ebazpenak emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita. Edonola ere, dagokion epea amaitutakoan ez bada ebazpena jakinarazi edo argitaratu, eskatzaileek eskaera ezetsitzat jo beharko dute, administrazioaren isiltasunagatik. GAO 2023-04-28 (11 orrialdea)

Emandako dirulaguntzak Entitateko iragarki taulan argitaratuko dira, ebazpenaren zati bat Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuta. Emandako laguntzak, banaka aztertuta, 3.000 euro baino gutxiagokoak badira, nahikoa izango da Kiroldegiko iragarki taulan argitaratuta.

Eskatutako dirulaguntzak eman direla edota ez adierazten duen ebazpen adieraziarekin amaitzen da administrazio bidea, eta jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, bi hilabeteko epea egongo da ebazpen horren aurkako administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkezteko Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian. Nahi izanez gero, eta administrazioarekiko auzi errekurtsioa baino lehen, birjartzeko errekurtsioa jarri ahal izango da, ebatzi zuen organo beraren aurrean.

12. Ez betetzea.

Oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen ez badira dirulaguntzen berrikusketa egingo da, eta hala dagokionean, emandako kopurua ezeztatuko edota murriztuko da, edota jasotako kopuru osoa zein zati bat itzuli beharko da, dirulaguntzei buruzko udal araudian zehaztutako moduan.

Dirulaguntzak itzultzeko prozesua ofizioz hasiko da, laguntza edota dirulaguntza eman duen organoak eskatuta. Prozesuaren tramitazioan interesatuak entzuna izateko duen eskubidea bermatuko da.

13. Interpretazioa.

Hernaniko Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol Sailak urtean zehar jarraipena egin dezake, aurkeztutako dokumentazioan jasotakoa egiazkoa dela ziurtatzeko.

Oinarri hauen interpretazioan zein garapenean sor daitezkeen zalantzak Hernaniko Udaleko Jarduera Fisikoa eta Kirol delegatuak argituko ditu.

Ale bat entitate eskatzailearen eskuetan geratuko da, eta bestea Hernaniko Udaleko Sarrera Erregistroan bertan.

14. Berrikusketa

Araudia urtero berrikusiko da.

KIROL EKINTZEN DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

A) KIROL EKINTZEN OHIKO ETA EZOHIKO DIRULAGUNTZAK

1. Helburua

Deialdi honen helburua Hernanin kokatutako irabazi asmorik ez duten kirol klubei zein entitateetarako dirulaguntzen kontzesioa arautzea da. Dirulaguntzak Hernaniko Udalaren Kirol programen helburuekin bat datozen 2023-2024 denboraldiko hainbat kirol programa eta jarduera antolatzeagatik emango dira, horiek izandako proiektuagatik zein interesagatik.

2. Aurrekontua eta programa

Deialdi honen gastua 2024ko Hernaniko Udaleko 02.481.01.341.00 2024 aurrekontu partidaren kargura egingo da, eta lehiaketa bitartez kontabilizatuko da.

Dirulaguntza ondoko lerroetan banatua dago:

1. lerroa: Ohiko dirulaguntzak (55.000 euro).
2. lerroa: Ezohiko dirulaguntzak (6.000 euro).

Bi modalitate hauetako partidak lotesleak izango dira, betiere modalitatearen eskari guztiak aztertu eta esleituta izandakoan dirua soberan gelditzen bada. Emandako laguntza guztien batura ezingo da izan horretarako onartutako aurrekontu-kreditu(k) baino handiagoa.

3. Onuradunak

Dirulaguntzak eskuratzeko aukera izango dute Hernanin kokatutako irabazi asmorik gabeko entitate juridiko pribatuek. Horien jarduerak deialdi honetan zehaztutako eremuetan burutuak izan behar dute.

Kasu zehatzetan, eta Hernaniko Udaleko Jarduera Fisikoa eta Kirol delegatuak hala zehaztutakoan, Hernanitik kanpo kokatutako entitateek ere izango dute dirulaguntzak eskuratzeko aukera, betiere, antolatutako jardueren zati handi bat udalerrian bertan egin denean edota udalerriarentzat interesgarriak direla ikusitakoan.

Entitateak indarrean dagoen araudiaren arabera eratutakoa izan behar du, eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarleen eta Entitateen Erregistro Orokorrean, zein Elkarleen Hernaniko Udal Erregistroan izena emanda egon beharko du.

Hori dela eta, irabazi asmorik gabeko entitateak honako honako hauek izango dira: bere helburuarekin bat datozen jarduerak antolatzen dituen elkartea eta horien irabaziak entitatearen helburuetarako inbertitzen dituenak.

4. Eskabideak aurkeztea

Dirulaguntzak jasotzeko aukera izan nahi bada, ondoko dokumentazioa aurkeztu behar da:

1. Dirulaguntza eskatzeko eskari ofizialak erabiliko dira behar bezala beteak eta sinatuak. Udalak gonbidatzen zaitu euskara hutsezkoa erabiltzera. Hernaniko Kiroldegia bulegoetan eskura daiteke eskaera orriak goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:30era, astelehenetik ostiralera.
2. Eskariekin batera ondoko dokumentazio hau aurkeztu behar da.
 - a) Klubaren estatutuak, duela gutxi eratutakoa bada.

- b) Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK) dokumentuaren fotokopia.
- c) Elkarteen Hernaniko Udal Erregistroan izena emanda dagoela ziurtatzen duen agiria.
- d) Entitate eskatzailearen curriculum, ondokoa zehaztuta:
 1. Talde kopurua, entrenatzaileak, eta haien sexua, kirol modalitate, sexua, egutegi ofizialak eta bakoitzaren kategoria.
 2. Abian den urteko Hernaniko kirolari edo federatu kopurua, sexua eta horien zerrenda; betiere klubeko kide direnak eta dagokion federazioak emanda.
 3. Klubeko kideen aurreko denboraldiko kirol balantzea (sailkapenak, lehiaketak, aukeratuak).
 4. 2022-2023eko ekitaldiko balantze ekonomikoa deskribapen zehatzarekin, eta diru sarreraren zein gastuen justifikazioa.(1. Eranskina).
 5. Herritar guztientzako promozio kirol jardueren antolaketa. Jarduera bakoitzaren dokumentazioa atxiki behar da.
 6. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun sustatzeko bereziki antolatutako jarduerak eta hartutako erabakiak.
- e) Hizkuntz irizpideen betetze maila adierazten duen agiria (2. eranskina) beteta.

Udalak euskararen erabilera normalizatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko badu Erabilera Plana onartua. Plan horren arabera hauek dira bete beharreko hizkuntza irizpideak:

a.-Diruz lagundutako jarduera adingabeentzat edo gazteentzat denean (entrenamenduak, aldageletako tertuliak, aholkuak, material idatzia, oharrak...) jarduera euskaraz izango da, ahoz eta idatziz.

b.- Herritar ororentzako idatzizko komunikazioa (egitarauak, kartelak, publizitatea eta jarduera egiteko espazio publikoa erabili behar izanez gero, bertan jarritako idatziak barne) euskaraz izango da. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.

c.-Herritar ororentzako ahozko komunikazioa (jardueraren aurkezpen, megafonia..) euskaraz izango da. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.

d.- Udalarekiko harremanetan euskara erabiliko da lehentasunez, ahoz eta idatziz.

⑩ Idatzizko testuan honela emango zaio lehentasuna euskarazko mezuari:

- Euskarazkoa nabarmendu, letra handiagoa edo lodia erabiliz.
- Euskarazkoa beltzez eta gaztelaniazkoa grisez idatziz.
- Euskarazko testua goiko aldean edo ezkerrean idatziz.
- Beste modu batzuk: Osagai batzuk euskara hutsean emanez: kopuruak, toki-izenak, datak.
- Testua osorik euskaraz eta laburpena gaztelaniaz emanez

Udaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko.

- f) Entitate eskatzaileak irekitako kontu baten titulartasunaren akreditazioa.
- g) Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekin egunean dituela ziurtatzen duen agiria, eta dirulaguntza eskabidean baimendu ezean, baita Ogasunarekin egunean dituela ziurtatzen duen agiria ere.
- h) Gastu eta sarreraren zerrenda zenbakitua eta sailkatua, gastu kontzeptuen arabera antolatuta. Zerrendan zehaztu behar dira: faktura zenbakia, faktura data, hartzekoduna, gastu azalpena, zenbatekoa, eta ordainketa data.

Ez dira inondik inora diruz laguntzeko modukoak izango banku kontuetako interes zordunak, gainkarga nahiz isun administratibo eta penalak, eta auzi prozeduretako gastuak. Tributuak gastu subentzionagarriak dira entitate onuradunak benetan ordaintzen dituenen. Inoiz ez dira lagun daitezkeen gastutzat joko zeharkako zergak (BEZ zerga...) -berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoak izanez gero- edo norberaren errentaren gaineko zergak.

Soilik, fakturarekin edota ziurtagiriekin justifikatutako gastuak hartuko dira kontuan.

Pertsona interesatuek hala deklaritzen badute eta Hernaniko Udalak Oinarri hauetan eskatutako dokumentuak berak dituela ikusten badu, ez da ezertxo ere aurkeztu beharrik izango.

Nolanahi ere, eskatutako dokumentazioaz gain, Udalak beharrezkoa iruditzen zaion informazio osagarria eskatu ahal izango du, aurkeztutako jarduera baloratzeko.

5. Eskaerak ebaluatzeko irizpideak.

5.1 Ohiko dirulaguntzak:

Ohiko jarduerak diruz laguntzeko jarritako kopurua (**55.000€**). Kopuru hori zati Klubei edo kirol taldeei esleitutako puntuak egingo da (jarraian jasotako balorazio adierazleen arabera), modu horretan puntu baten balio ekonomikoa kalkulatu da. Balio ekonomiko horrek bider kirol klubari esleitutako puntuak zehaztuko du atal bakoitzeko dirulaguntzaren zenbatekoa. Atal guztien baturak xedatuko du Klub bakoitzari eman beharreko zenbateko osoa. Dirulaguntza jasotzeko aukera izateko; gutxienez 8 federazio-lizentzia beharko dira.

Ohiko jarduera diruz laguntzeko jarritako kopurua, honako ehunekoetan banatuko da, atalaren arabera:

1. atala diruaren % 45.
2. atala diruaren % 25.
3. atala diruaren % 10.
4. atala diruaren % 10.
5. atala diruaren % 10.

1 atala	
Lizentziak:	Mutilak: 1 puntu Neskak: 2 puntu Hernaniar herritar lizentzia bakoitzeko: 1 puntu
Txapelketa ofizialak: Talde bakoitzeko	1 puntu
Maila: (Talde bakoitzeko)	Gipuzkoa: 1 puntu Euskal Herria 2 puntu Espainiakoa: 3 puntu Nazioartekoa: 4 puntu
Entrenatzaileak:	Lizentziatuak eta III. mailako entrenatzailea: 5 puntu. Gizonezkoa 4 puntu II. mailako entrenatzailea edo autonomikoa: 3 puntu. Gizonezkoa 2 puntu I mailako entrenatzailea edo eskualdekoa: 2 puntu. Gizonezkoa puntu 1 Titulurik gabeko entrenatzailea: 0 puntu.

(*) Puntuatzeko nahitaezkoa da fitxa aurkeztea.

Entrenatzaileen eta kirolarien kalkuluak aparte egingo dira.

Txapelketa ofizialetan parte hartzen ez duten kirol modalitateei kontuan hartuko zaien lizentzia kopurua, txapelketa ofizialetan parte hartzen duten klubaren artean lizentzia gehien duen klubaren lizentzia kopuru berbera izango da, betiere klub horrek baino lizentzia gehiago badituzte.

2 atala: GARRAIOA		
Garraioa arloa	Txapelketako ofizialak	Besteak

Gipuzkoa	1 puntu	0,5 puntu
Euskal herria	3 puntu	1 puntu
Espainia	5 puntu	2 puntu
Nazioartea	7 puntu	3 puntu

3. atala: Guztientzako kirola eta promoziozko jarduerak antolatzea	
Urtez urte antolatutakoa:	10 puntu
Unean une antolatutakoa:	5 puntu
Desgaitasunen bat dutenentzako jarduerak antolatzea:	15 puntu
Euskal Herriko ondare diren jarduerak badira:	15 puntu

Kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzaren 2/2024 Euskadiko Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Legearen arabera euskal ondare direnak, hau da, herri kirolak, pilota modalitate guztiak, arrauna, eta boloak.

4. atala: Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun sustatzeko bereziki antolatutako jarduerak eta hartutako erabakiak
Halaber egungo egoera ere baloratuko da.

5. atala: Udalak zuzenean antolatutako ekintzetan laguntzea	
Denboraldian zehar Udalari lagundutako ekintza edo jarduera bakoitza:	1 puntu

Klub guztiek gutxieneko kopurua jasoko dute. Aipatutako kopurua kobratu ahal izateko, aurkeztutako datuekin gutxienez 50 puntu lortu behar dituzte. Eman beharreko kopuruak inoiz ez du baimendutako gastua gaitutuko.

5.2 Ezohiko dirulaguntzak:

Hernaniko klubek edo kirol elkarteek dituzten ezohiko gastuei aurre egiteko laguntzea. Ezohiko jarduerak diruz laguntzeko jarritako kopurua (6.000€), aurkeztutako gastuen arabera proportzionalki banatuko da. (5. eranskina).

Diruz lagundu daitezkeen gastuak, hauek izango dira:

- Euskal Herritik kanpora joatea lehiatzera kirol lorpen ofizial bat bada.
- Herrian antolatzen diren txapelketak, baina lehenengo bi urteetan bakarrik.
- Gonbidapen bat jasotzen bada txapelketa batera joateko, baina lehenengo bi urteetan bakarrik.
- Kirol instalazio bat sei hilabete baino gehiago itxita badago, klubari sortzen zaizkien aparteko gastuak.

Hernaniko Udaleko Jarduera Fisikoa eta Kirol Batzordeak eskaerak aztertu ostean, eta Kirol Zuzendaritzak egindako txostena baloratuta, dirulaguntzak nori eman aukeratuko du. Horretarako eskatzaileen eta kopuruen arteko erlazioa adierazi behar da, hori gauzatzeko erabilitako ebaluazio irizpideak zehaztuta.

6. Dirulaguntzen ordainketa.

Dirulaguntzen guztizko kopuruak, bakarrik edota beste diru laguntzekin zein beste Administrazio Publikoen edo Erakunde publikoen zein pribatuen laguntzekin batera, ez du onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua (defizita) gaitutuko. Ebaluazio irizpideak baloratu ostean, ohiko dirulaguntzei dagokienez, kirol klub bakoitzari ordainduko zaio puntu bakoitzak duen balioa klubak lortu dituen puntuekin biderkatuta lortzen den diru kopurua.

Ezohiko dirulaguntzei dagokienez, klub bakoitzari ordainduko zaio proportzionalki dagokiona aurkeztutako gastuen arabera.

Eskaerak ebazteko eskumena duen organoa Hernaniko Alkatetza da.

Ebazpena, kasu guztietan, idatzita eta arrazoi guztiak azalduta jakinaraziko da, eta ebazpena positiboa bada, dirulaguntza kopurua, ordainketa modua, justifikazio forma (fakturen kopiak) eta gainerako baldintzak zein oinarri hauetan exijitutako guztia zehaztuko da.

Ordainketa modua: Ebazpena jakinarazi ostean % 100.

B) KIROL EKINTZA, JARDUERA BEREZIEN ETA FORMAKUNTZA DIRULAGUNTZA

1. Helburua.

Deialdi honen helburua da, norgehiagoka araubidez, dirulaguntzak banatzea, 2024an zehar, Hernaniko udalerrian, herriko eragileek antola ditzaten kirol ekitaldi, jarduera bereziak edo euskaraz entrenatzaile nahiz arbitroen ikastaroak egin ditzaten. Jarduera horien xedea da herrian kirola sustatzea, eta ez dute irabazi asmorik izango. Gainera, kirol arloan interes orokorrekoak izan beharko dute.

2. Aurrekontua eta programa

Programa honen bidez deitutako "Diru-laguntza: kirol ekintzak" partidaren 3. Lerroko diru-laguntzen zenbatekoa 10.000 euro izango da eta 2023ko Hernaniko Udaleko 1 02.481.01.341.00 2024 aurrekontu partidaren kargura, eta lehiaketa bitartez kontabilizatuko da.

Modalitate eskaria guztiak aztertu eta esleitura izandakoan dirua soberan gelditzen bada, epealдитik kanpo egiten diren proposamenetan erabili ahal izango da gastatu arte.

3. Onuradunak

Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzak eskatu ahal izago dituzte, Hernanin eta Hernanitik kanpo, betiere, antolatutako jardueren zati handi bat udalerrian bertan egin denean edo egingo denean edota udalerrarentzat interesgarriak direla ikusten bada.

Entitateek indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egon beharko dute, eta Eusko Jaurlaritzako Elkarleen Erregistro Orokorrean izena emanda.

4. Eskabideak aurkeztea

Dirulaguntza eskatzeko eskari ofizialak erabiliko dira behar bezala beteak eta sinatuak. Udalak gonbidatzen zaitu euskara hutsezkoa erabiltzera. Hernaniko Kiroldegiaeren bulegoetan eskura daiteke eskaera orriak goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:30era, astelehenetik ostiralera.

Eskariek in batera ondoko dokumentazio hau aurkeztu behar da.

a) Eskaera orri orokorra (I eranskina)

b) Kirol -klub edo -elkarte, erakunde edo interesatu eskatzailearen kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.

c) Jardueraren gastuen (kontzeptua eta zenbatekoa) eta sarreraren (jatorria eta zenbatekoa) aurrekontua. (II. eranskina)

d) Zinpeko aitorpena, Gizarte segurantzaren betebeharren, zerga betebeharren eta beste diru laguntzen ingurukoa. (III. ERANSKINA)

e) Jarduerari buruzko Eranskina (IV. eranskina)

f) Hizkuntz irizpideen betetze maila adierazten duen agiria (V. eranskina) beteta.

Udalak euskararen erabilera normalizatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko badu Erabilera Plana onartua. Plan horren arabera hauek dira bete beharreko hizkuntza irizpideak:

a.-Diruz lagundutako jarduera adin gabekoei edo gazteei zuzendua denean jarduera euskaraz izango da, ahoz eta idatziz.

b.-Herritar ororentzako idatzizko komunikazioa (egitarauak, kartelak, publizitatea eta jarduera egiteko espazio publikoa erabili behar izanez gero, bertan jarritako idatziak barne) euskaraz izango da. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.

c.-Herritar ororentzako ahozko komunikazioa (jardueraren aurkezpen, megafonia..) euskaraz izango da.

Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.

d.-Udalarekiko harremanetan euskara erabiliko da lehentasunez, ahoz eta idatziz.

Idatzizko testuan honela emango zaio lehentasuna euskarazko mezuari:

- Euskarazkoa nabarmendu, letra handiagoa edo lodia erabiliz.

- Euskarazkoa beltzez eta gaztelaniazkoa grisez idatziz.
- Euskarazko testua goiko aldean edo ezkerrean idatziz.
- Beste modu batzuk: Osagai batzuk euskara hutsean emanez: kopuruak, toki-izenak, datak.
- Testua osorik euskaraz eta laburpena gaztelaniaz emanez

Udaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko.

Ez dira inondik inora diruz laguntzeko modukoak izango banku kontuetako interes zordunak, gainkarga nahiz isun administratibo eta penalak, eta auzi prozeduretako gastuak. Tributuak gastu subentzionagarriak dira entitate onuradunak benetan ordaintzen dituenen. Inoiz ez dira lagun daitezkeen gastutzat joko zeharkako zergak (BEZ zerga...) -berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoak izanez gero- edo norberaren errentaren gaineko zergak.

Soilik, fakturarekin edota ziurtagiriek justifikatutako gastuak hartuko dira kontuan; epaile eta entrenatzaile formakuntzen kasuan, gainera, ikastaroa gainditu izanaren agiria eta ikastaroen erabilitako material didaktikoaren kopia aurkeztu beharko da.

Pertsona interesatuek hala deklaritzen badute eta Hernaniko Udalak Oinarri hauetan eskatutako dokumentuak berak dituela ikusten badu, ez da ezertxo ere aurkeztu beharrik izango.

Nolanahi ere, eskatutako dokumentazioaz gain, Udalak beharrezkoa iruditzen zaion informazio osagarria eskatu ahal izango du, aurkeztutako jardura baloratzeko.

5. Eskaerak ebaluatzen irizpideak.

Oinarri hauetan zehaztutako kirol ekitaldi, jardura bereziak eta formakuntza jarduerak diruz laguntzeko zehaztutako zenbateko guztia, epe barruan aurkeztutako eskaera guztiak kontutan hartuz, honako kontzeptu eta irizpideen arabera banatuko dira.

6.- Dirulaguntzaren kontzeptuak eta irizpideak

6.1.- Diruz lagundu daitezkeen programak:

Diruz lagundu ahal izango dira, lehentasunez, Hernaniko udalerrian:

- Gizarte aktiboago bat sustatzen dutenak.
- Bizi ohitura osasungarriak sustatzen dituztenak.
- Kirolean eta jardura fisikoan Euskararen erabilera bultzatu eta sustatzen duten programak.
- Herriar guztien kirol praktika errazten duten jarduerak diseinatzen dituztenak.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko ekintzak eta/edo programak sustatzen dituztenak, eta/edo gutxietsita edo bazterkeria arriskuan dauden kolektiboak kontuan hartzen dituztenak.
- Bertako tradizioak berreskuratzea sustatzen dutenak.
- Honako jarduerak egiten dituztenak: gazteen aisialdian arriskuen prebentzioa, aisialdiko jarduerak, bizi kalitatea hobetzeko jarduerak, ezintasunak dituztenentzako jarduerak, gazteek gizartean duten papera sustatu eta indartzeko helburua duten jarduerak.
- Euskaraz (gutxienez %65) burututako entrenatzaile ikastaroak, federazioek, Kirolene nahiz Jardura Fisikoa eta Kirolaren Euskal eskolarekin elkarlanean antolatutakoak.
- Euskaraz (gutxienez %65) burututako epaile ikastaroak federazioek, Kirolene nahiz Jardura Fisikoa eta Kirolaren Euskal eskolarekin elkarlanean antolatutakoak.

6.2.- Balorazio irizpideak:

Oinarri hauetan zehaztutako kirol ekintza, jardura bereziak eta formakuntza jarduerak diruz laguntzeko zehaztutako zenbateko guztia, epe barruan aurkeztutako eskaera guztiak kontutan hartuz, jarraian azaldutako kontzeptu eta irizpideen arabera banatuko dira.

Gehienez 100 puntu eskuratu ahal izango dira, honela banatuta:

Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa (10 puntu gehienez)	- Diseinua, metodologia eta egokiera (5 puntu) - Berrikuntza maila (5 puntu)
Proiektuaren balorazioa (15 puntu gehienez)	- Gizarte aktiboago bat sustatzea (5 puntu)

	- Bizi ohitura osasungarriak sustatzen dituztenek (5 puntu) - Herritar guztiei zuzendutako kirol praktika errazten duten jarduerak diseinatzen dituztenek (5)
Parte hartzea doakoa edo ordaindua (gehienez 10 puntu)	Parte-hartzea doakoa bada: 10 puntu.
Berdintasuna (gehienez ere 15 puntu)	Ekitaldia emakumeen parte-hartzea sustatzeko berariazko ekimena bada: 15 puntu. Ez bada berariaz emakumeentzako baina berdintasun-plana edo antzeko bat badauka: 10 puntu. Antolakuntza barruko, boluntarioen eta langileen artean % 50 baino gehiago emakumeak badira: 5 puntu.
Dibertsitate funtzionala duten herritarren parte-hartzea bultzatzea (gehienez 10 puntu)	Kolektibo horientzat bereziki prestatutako eskaintza bada (10 puntu) Inklusioa bultzatzen duen ekitaldia edo jarduna bada (10 puntu)
Kultur aniztasuneko herritarren parte hartzea sustatzea (10 puntu gehienez)	Migratzaile eta jatorri askotariko pertsonen parte hartzea bultzatzea (10 puntu) Kulturarteko jarduerak sustatzea kirolean (5 puntu)
65 urtetik gorako herritarrei berariaz zuzenduriko ekitaldi edo jardura (gehienez 10 puntu)	Bai (10 puntu)
Euskal Pilota eta Herri Kirolak (10 puntu gehienez)	Bai (10 puntu)
Euskararen erabilera (gehienez 10 puntu)	Euskaraz (10 puntu)
Entrenatzaile ikastaroa (gehienez 30 puntu)	5 puntu ikasleko 10 puntu neskak badira
Epaile ikastaroa (gehienez 30 puntu)	5 puntu ikasleko 10 puntu neskak badira
Entrenatzaile ikastaroa (gehienez 30 puntu)	5 puntu ikastaroa 10 ordutik gorakoa bada, 10 puntu 20 ordutik gorakoak, 20 puntu 40 ordutik gorakoa
Epaile ikastaroa (gehienez 30 puntu)	5 puntu ikastaroa 10 ordutik gorakoa bada, 10 puntu 20 ordutik gorakoak, 20 puntu 40 ordutik gorakoa

Dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da eta ezingo da izan antolatu beharreko kirol ekintza edo jardura bereziaren kostua baino handiagoa.

Ekitaldi bakarrak ezingo du dirulaguntza osoaren %40 baino gehiago eskuratu.

Ez zaizkio emango 2 dirulaguntza baino gehiago entitate berari.

Ekintza edo jardura berezia ezin izango da bi dirulaguntzetara aurkeztu (kultura, san joanak, ez ohikoak...).

Kirol ekintza edo jardura bereziaren gastu bezala honako hauek baino ez dira kontuan hartuko, ekitaldiko, torneo edo txapelketa gastuak:

- federazioaren kanona, arbitrajeak, kartelak, materiala (bolak, pilotak...), garaikurrak, segurtasuneko materiala (zintak...).

Beste gastu batzuk: begiraleen gastuak, aseguruak, anbulantzia, zaintza zerbitzua...

Ikastaroen kasuan ez da inoiz ordainduko gastuaren %80 baino gehiago, eta formakuntzarako dirulaguntza ez da inoiz 2000€ baino gehiago izango. Onartutako eskaeren zenbateko osoak atal honetara bideratutako 2000€ak gainditzen badu, onartutako eskabide guztien artean hainbanaketa egingo da.

Irizpide hauekin eskaera bakoitza baloratuko da. Gutxienez 20 puntu lortzen ez dituzten eskaerak baztertu egingo dira.

7. Dirulaguntzen ordainketa.

Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena eman dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da.

Ordainketa era honetan gauzatuko da:

- Dirulaguntzaren lehenengo zatia, %80a, gastuen konturako aurrerakin moduan, hura onartzen denean.

- Gainerako %20a, denboraldia amaitu ondoren, dirulaguntza nola gastatu den justifikatu ondoren. Dokumentazio hau aurkezteko epea 2025eko urtarrilaren 31n amaituko da (VI eranskina)

Dirulaguntzen guztizko kopuruak, bakarrik edota beste diru laguntzekin zein beste Administrazio Publikoen edo Erakunde publikoen zein pribatuen laguntzekin batera, ez du onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua (defizita) gaindituko. Ebaluazio irizpideak baloratu ostean, ohiko dirulaguntzei dagokienez, kirol klub bakoitzari ordainduko zaio puntu bakoitzak duen balioa klubak lortu dituen puntuekin biderkatuta lortzen den diru kopurua.

Ezohiko dirulaguntzei dagokienez, elkarte edo klub bakoitzari ordainduko zaio proportzionalki dagokiona aurkeztutako gastuen arabera.

Eskaerak ebazteko eskumena duen organoa Hernaniko Alkatetza da.

8. Ez betetzea

Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat ez bada, dirulaguntza berraztertu egingo da eta, hala badagokio, baliogabetu edo emandako diru kopurura itzuli egin beharko da.

Dirulaguntza itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, dirulaguntza eman zuen organoaren eskariz, eta hala badagokio, emandako dirulaguntza baliogabetzea, murriztea edo itzultzea erabaki ahal izango da, behar bezala arrazoituta. Prozeduraren izapideetan interesatuaren entzute eskubidea bermatuko da.

Hernani, 2024ko maiatzaren 23an.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Batzordeburua